

# **Aretxabaletako emakume eta gizonen III. berdintasunerako Plana 2030**

**Txosten laburra**

- **Izenburua:**  
Aretxabaletako emakume eta gizonen III. Berdintasunerako Plana 2030 (txosten laburra)
- **Epealdia:** 2026-2030
- **Zenbakitan:** Planak 4 lan-ardatz, 33 helburu espezifiko eta 84 ekintza ditu.
- **Noiz onartu den:** 2026ko ekaina

Plan osoa [hemen](#)



Diruz lagundu du:



# Planaren egitura

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategian ezartzen diren 4 lan-ardatzetan oinarrituta egituratzen da Plana.

# 1

## Gobernu ona

Berdintasuna sustatzeko konpromiso politikoa, eta udal jarduera guztietan genero ikuspegia txertatzeko estrategia garatzea.

# 2

## Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen genero kontzientzia, eskubideen ezagutza, autonomia sozial eta ekonomikoa sustatzea. Horrez gain, emakumeen aniztasunari erreparatzea,

# 3

## Gizarte -antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria

Bizitza jasangarriagoak, berdinzaleagoak izateko gizarteko esparru guztietan lan egitea. Genero-rol eta estereotipoak deseraiki eta zaintzak erdigunean jartzea.

# 4

## Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Giza eskubideen urraketa den heinean: indarkeria matxistaren kontrako prebentzioa, kasuen detekzioa, administrazioen arteko koordinazioa hobetzea eta erreparazioan arreta jartzea.

## Emakume eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa

- Berdintasun politikak garatzeko baliabideak bermatzea
- Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea

## Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea

- Udaleko arduradun politikoen sentsibilizazioa eta formakuntza bermatzea
- Udaleko teknikari eta langileak berdintasun gaietan trebatzea
- Udalean pertsonen informazioa jasotzen denean sistematikoki txertatzea sexuaren aldagaia
- Udal sailek aldiro egiten dituzten estatistika azterketetan genero ikuspegia txertatzea
- Araudiaren, ordenantzen, planen eta udal-proiektu estrategikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa ziurtatzea
- Berdintasun-klausula eraginkorrak dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen ehunekoa handitzea
- Ordezkaritza- eta partaidetza-organoetan ordezkaritza orekatua ziurtatzea
- Udaleko sailen arteko koordinazio-egiturak indartzea, sendotzea eta areagotzea berdintasunari zeharlerrokotasunetik heltzeko
- Udalak egiten dituen komunikazioetan (jakinarazpenak, notiziak, kartelak, esku-orriak...) hizkera eta irudien erabilera inklusiboa bermatzea



|   |                    |
|---|--------------------|
| Berdintasunerako <b>trebakuntza</b> -plana diseinatu <b>udal langile eta ordezkari politikoentzat</b> (trebakuntza beharrak identifikatu, plana diseinatu eta jarraipena egiteko sistema sortu) | 2026 eta 2027-2028 |
| Udal <b>sailetan datuak genero-ikuspegiz</b> jaso eta aztertu   | Urtero             |
| <b>Udal sailek</b> Berdintasun sailarekin koordinazioan, urteko <b>berdintasunerako helburuak eta ekintza zehatzak adostu</b>   | Urtero             |
| <b>Genero aldagaia txertatu</b> (datuak jasotzean, eskaera-orrietan...)   | 2026               |
| Berdintasun klausulak txertatu <b>kontratazioan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan</b>  | 2027-2028          |
| Generoaren araberako <b>eraginaren aurretiazko ebaluazioa</b> egin urtean araudi, plan eta proiektu estrategikoren batean gutxienez   | 2027-2028          |
| Genero ikuspegidun <b>hirigintza diagnostikoa</b> landu   | 2026-2027          |
| Udalaren Berdintasunerako <b>Barne-planeko ekintzak</b> burutu  | Urtero             |
| Sexuan oinarritutako eta <b>jazarpen</b> sexualaren <b>protokoloaren</b> jarraipena   | Urtero             |



## **TRIL Atxabaltako Txoko Feminista indartzea**

- Txoko Feminista herrira zabaldu eta ezagutzera ematea.
- Neska gazteak Txoko feministara gerturatzea.
- Emakumeen arteko sareak sortzea
- Herriko emakumeen aniztasunari eta interesei egokitutako programazioa antolatzea
- LGTBIAQ+ emakumeen errealitatea kontuan hartzea
- LGTBIAQ+ emakumeen aniztasunari buruzko sentsibilizazio ekintzak programazioan txertatzea

## **Emakumeen kontzientziakoa, aitortza eta autonomia**

- Aitzindariak izan diren emakume kirolariei, idazleei, artistei ... aitortza egitea eta herriari zabaltzea
- Kirol maskulinizatuetan nesken eta emakumeen parte- hartzea sustatzea
- Aniztasunean genero kontzientzia, autoestimua eta emakumeen autonomia sustatzen dituzten prozesuak sortu eta finkatzea



|   |           |
|---|-----------|
| TRIL Atxabaltako Txoko Feminista herrira zabaltzeko <b>komunikazio kanalak</b> erabaki eta martxan jarri        | 2026      |
| TRIL Atxabaltako Txoko Feministako <b>parte-hartzaileen datuak</b> jaso eta ustiatu                             | Urtero    |
| <b>Jabetze eskolako</b> programazioa antolatu   | Urtero    |
| Emakumeen arteko <b>sareak</b> sortu / Emakume talde egonkorrak sortu   | 2026-2027 |
| TRIL Atxabaltako Txoko Feminista <b>zerbitzuz</b> hornitu   | 2027-2028 |
| Emakume aitzindariak <b>ikusarazi</b> (dokumental, erakusketa, jardunaldiak baliatuz)                           | Urtero    |
| <b>Neska eta emakumeen kirol-taldeak sustatu</b> (bolo taldea, pelota taldea...)                                | 2026-2030 |
| Herrian arrakasta handia duten kirola aukeratu eta <b>txapelketa mistoa</b> antolatu, futbolekoa esate baterako | 2026-2030 |

# 3

Gizarte -antolaketa  
bidezkoa,  
berdintasunezkoa  
eta jasangarria

HELBURU ESPEZIFIKOAK

## **Herriko eragile eta herritarren konpromisoa berdintasunerako bidean**

- Berdintasunaren aldeko hezkuntza-proiektuak ezartzea eta indartzea herrian
- Herriko kirol-elkarteekin elkarlana garatzea, kirolean genero-ikuspegia txertatzeko eta ikuspegi hori oinarritzat izango duten lanketak bultzatu eta osatzeko
- Mutil eta gizonak berdintasunean gaitu eta inplikatzea
- Anitzak diren erreferenteak herrira ekartzea haur, gazte eta helduei beste errealitateak gerturatzeko
- Gaztelekuan nesken parte- hartzea areagotzea

## **Zaintza-lanak ikusarazi eta duintzea**

- Aretxabaletako zaintzaren errealitatera gerturatzeko eta zaintza lanen balioa ikusaraztea eta sozialki aitortzea
- Zaintza-lanetan emakumeek egiten duten lana jendartearen aitortua izatea bermatzea



|  |                     |
|--|---------------------|
| Herriko <b>zaintzen inguruko diagnostikoa</b> egin   | 2027                |
| Ikastetxeekin elkarlanean <b>pedagogia feministen programa</b> garatu                                      | Urtero              |
| Liburutegian <b>liburu feministen gunea</b> sortu  | 2026-2027           |
| Kirol elkarteekin elkarlanean " <b>Kirola eta berdintasuna</b> " gida sortu                                | 2026-2027           |
| " <b>Gazteria eta berdintasuna mahaia</b> "-k martxan segi   | Urtero              |
| <b>Gizonei</b> zuzendutako tailerrak antolatu (gizontasunaren eraikuntzari eta ardura hartzeari buruzkoak) | Urtero              |
| Dirulaguntza-deialdia: Berdintasuna sustatzeko <b>elkarteentzako dirulaguntzak</b>                         | Urtero              |
| Dirulaguntza-deialdia: <b>Proiektu feministen sormen beka</b>  | 2026, 2028,<br>2030 |

# 4

## Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak

### HELBURU ESPEZIFIKOAK

#### Sentsibilizazioa eta prebentzioa

- Haur, gazte eta helduekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.
- Azaroaren 25etik harago, indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna handitzea

#### Eskuhartzea eta koordinazioa

- Indarkeria matxistaren kontrako mahaia egonkortzea
- Udal barnean indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa eta jarduna sendotzea
- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako informazioa eskuragarri eta eguneratuta egotea
- LGTBIAQ+ pertsonak pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko ekimenak burutzea

#### Erantzun publikoa

- Indarkeria matxistaren aurrean Udalaren erantzun irmoa bermatzea

# 4

## Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

### EGITASMO NAGUSIAK

|   |           |
|---|-----------|
| Jaietan (Andramaixak, sanmigelak eta Aratusteak) <b>eraso matxisten kontrako kanpaina</b>   | Urtero    |
| Jaietan (Andramaixak, sanmigelak eta Aratusteak) <b>gune morea</b>                          | Urtero    |
| <b>Autodefentsa feminista</b> tailerrak antolatu  | Urtero    |
| " <b>Indarkeria matxistaren koordinazio mahaia</b> "-k martxan segi                         | Urtero    |
| Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako <b>baliabideen gida</b> egin eta zabaldu | 2026-2027 |

# Berdintasun saila

[berdintasuna@aretxabaleta.eus](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.eus)

tel. 688 63 33 81